Abadiño
Elizateko Udala

ABADIÑON LUDOTEKA ETA HIRI-UDALEKUA EUSKARAZ ANTOLATU, KUDEATU ETA EGITEKO KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratua bi lotetan banatzen da, parte-hartzaileen adinaren arabera, eta honako hauek dira:

1. lotea: Abadiñon hezkidetzako euskarazko Ludoteka antolatu, kudeatu eta gauzatzea.

2. lotea: Abadiñon hezkidetzako euskarazko hiri-udalekua antolatzea, kudeatzea eta gauzatzea.

Bi lote horien helburua zera da, udako aisiaren eta astialdiaren eremuan, haurren artean euskararen erabilera bultzatzea, eta horrekin batera umeen arteko elkarbizitza eta parte-hartze ohiturak sustatzea.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena urte batekoa izango da, beste hiru urteko luzapenerako aukerarekin (urterik urte luzatuta).

Zerbitzuaren egutegia honakoa izango da bi loteetarako:

2022	Ekainak 27 – uztailak 15

(larunbat, igande eta jai egunak izan ezik)

3.- ONURADUNAK

1. lotea: Abadiñon erroldatutako edo bertako

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA LA ORGANIZACIÓN, GESTIÓN Y EJECUCIÓN DE UNA LUDOTECA Y DE UNA COLONIA URBANA EN EUSKERA EN ABADIÑO

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato se divide en dos lotes, según edad de las personas participantes y que son los siguientes:

Lote 1: Organización, gestión y ejecución de una Ludoteca coeducativa en euskera en Abadiño.

Lote 2: Organización, gestión y ejecución de una Colonia Urbana (Hiri-udalekua) coeducativa en euskera en Abadiño.

El objetivo de ambos lotes es potenciar el uso del euskera entre la población infantil dentro del ámbito del ocio durante la época estival, además de potenciar los hábitos de convivencia y participación entre niños y niñas.

2.- DURACIÓN DEL CONTRATO

La duración del contrato será de un año, con posibilidad de prórroga de un año, más un año, más un año.

El calendario del servicio será el siguiente, para ambos lotes:

2022	27 junio – 15 julio

(excepto sábados, domingos y festivos)

3.- BENEFICIARIOS/AS

Lote 1: Niños y niñas empadronadas o que

ikastetxeetan ikasten duten 3 eta 6 urte bitarteko haurrak, 2022 urterako 2016-1-1 eta 2019-12-31 bitartean jaiotakoak izango dira. Ondorengo urteetarako logika berbera aplikatuko da. Gehienez **100 ume** izango dira parte hartuko dutenak.

cursan sus estudios en el municipio de Abadiño de 3 a 6 años. Serán los nacidos y nacidas entre el 1-1-2016 y el 31-12-2019 para el año 2022 y se aplicará la misma lógica para los sucesivos años. Participarán como máximo **100 niños/as.**

Lote honetan, gutxienez 10 pertsonak hartu behar dute parte.

El número mínimo de participantes en este lote es de 10.

2. lotea: Abadiñon erroldatutako edo bertako ikastetxeetan ikasten duten 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak, 2022 urterako 2010-1-1 eta 2015-12-31 bitartean jaiotakoak izango dira. Ondorengo urteetarako logika berbera aplikatuko da. Gehienez ere **120 ume** izango dira parte hartuko dutenak.

Lote 2: Niños y niñas empadronadas o que cursan sus estudios en el municipio de Abadiño de 7 a 12 años. Serán los y las nacidas entre el 1-1-2010 y el 31-12-2015 para el año 2022 y se aplicará la misma lógica los sucesivos años. Participarán como máximo **120 niños/as**.

Lote honetan, gutxienez 12 pertsonak hartu behar dute parte.

El número mínimo de participantes en este lote es de 12.

Hala ere, Euskara eta Hezkuntza Sailak plaza-kopurua banatzeko edo egokitzeko eskubidea izango du, inskripzioaren ondoren egiaztatutako errealitatea kontuan hartuta edo COVID-19ak eragindako ezohiko neurriak betetzeko.

No obstante, el Área de Euskera y Educación se reserva el derecho a distribuir o adecuar el número de plazas según la realidad contrastada tras la inscripción o para el cumplimiento de las medidas extraordinarias relativas a la pandemia de COVID-19.

4.- ANTOLAKETA
4.1. ALDEZ AURREKO LANA

4.- ORGANIZACIÓN
4.1. TRABAJO PREVIO

Enpresa esleipendunari dagokio jardueraren publizitatea egitea, bai eta izena emateko prozesua egitea ere. Errota Kultur Etxea eta Udal Mediateka erabili ahal izango dira horretarako.

Corresponderá a la empresa adjudicataria la publicidad de actividad y el proceso de inscripción. Se podrá hacer uso de la Casa de Cultura Errota y de la Mediateca municipal a tal efecto.

Edozein euskarri argitaratu baino lehen

Antes de publicar cualquier soporte

Udaleko Euskara Zerbitzuarekin kontrastatuko du enpresa esleipendunak.

Era berean, enpresa esleipendunari dagokio ondoren familiekin komunikatzea, aldez aurreko informazio-bilera egitea eta jarduera agintaritza eskudunari jakinaraztea. Horretarako, erakunde esleipendunak, Eusko Jaurlaritzaren 170/1985 Dekretuan ezarritakoaren arabera, jardueraren hasiera jakinarazi beharko dio agintaritza eskudunari, eta horrek eskatutako dokumentazioa aurkeztuko du, agintaritza horrek berak balorazioa egin dezan.

Beharrezkoa izatekotan, COVID-19 edo antzeko larrialdi egoeran erabili beharreko osasun material guztia (musukoak, gelak, termometroak…) ere enpresaren gain geratuko da.

4.2. RATIOAK ETA BEGIRALE GEHIGARRIAK

Aplikatuko den ratioa ondorengoa da:

- Gehienez 10 ume begiraleko Ludotekan
- Gehienez 12 ume begiraleko Hiri-udalekuan.

Hezkuntza-aisialdiari dagokionez agintariek unean-unean ezartzen dutena beteko da.

Era berean, enpresa esleipendunak begirale gehigarriak atxikiko dizkio zerbitzuari, kasuak hala eskatzen duenean, desgaitasun edo behar zehatzen bat edo urritasun fisiko, psikiko edo sentsorialen bat duten ume edo gazteentzat.

comunicativo, la adjudicataria lo contrastará con el Servicio de Euskera del Ayuntamiento.

Asimismo, las posteriores comunicaciones con las familias, la reunión de información previa, la comunicación de la actividad a la autoridad competente corresponderá a la empresa adjudicataria. Para ello la entidad adjudicataria, en virtud de lo establecido en el Decreto 170/1985 de Gobierno Vasco, deberá comunicar a la autoridad competente el inicio de la actividad. Del mismo modo presentará la documentación requerida por esta, de cara a la valoración por parte de dicha autoridad.

En caso de ser necesario, el material sanitario (mascarillas, geles, termómetros…) que deba utilizarse ante la situación provocada por la COVID-19 o una situación similar de emergencia correrá a cargo de la empresa adjudicataria.

4.2. RATIOS Y MONITORADO ADICIONAL

El ratio a aplicar será de:

- Máximo 10 menores por monitor/a en Ludoteca
- Máximo 12 menores por monitor/a en Hiri-udalekua.

Se atenderá a lo que establezcan, en cada momento, las autoridades en lo que afecta al tiempo libre educativo.

Asimismo, la empresa adjudicataria adscribirá a la prestación del servicio monitorado adicional cuando el caso así lo requiera, para niños/as con alguna discapacidad o necesidad específica, deficiencia física, psíquica o

Berritzeguneren txostena erabiliko da haurrak dauzkan beharrak zehazteko.

sensorial.
Las necesidades que el o la menor pudiera tener se determinarán en función al informe de Berritzegune.

4.3. TOKIA

Behin eskoletako arduradunei horren berri eman eta eskabidea egin ondoren, toki hauetan kokatuko da lote bakoitza:

1. lotea: Zelaieta HLHI-ko instalazioetan eta inguruetan kokatuko da (jarduera bereziak direnean salbu).

2. lotea: Traña-Matiena HLHI-ko instalazioetan eta inguruetan (jarduera bereziak direnean salbu).

Espazio zabal eta irekiak erabiltzea lehenetsiko da.

Eskola bakoitzean erabilitako lokalen zainketa eta mantentze-lanak, garbiketa barne, enpresa edo elkarte adjudikaziodunak egin behar ditu. Pandemia egoeratik eratorritako garbiketa berezia, aldiz, Udalak hartuko du bere gain.

4.3. LUGAR DE REALIZACIÓN

Los lotes, previa solicitud y acuerdo con las direcciones escolares, se ubicarán en las siguientes instalaciones:

Lote 1: en CEIP Zelaieta HLHI y alrededores (salvo cuando se trate de actividades especiales).

Lote 2: en CEIP Traña-Matiena HLHI y alrededores (salvo cuando se trate de actividades especiales).

Se priorizará utilizar espacios grandes y abiertos.

El cuidado y mantenimiento diario de los locales utilizados, incluida la limpieza, correrá a cargo de la empresa o asociación adjudicataria. Sin embargo, la limpieza adicional derivada de la situación de pandemia actual correrá a cargo del Ayuntamiento.

4.4. ORDUTEGIA

Bi loteetarako: ordutegia 9:30etik 13:30era izango da, kontuan izanda amaiera atzeratu ahal duten jarduera bereziak izan litezkeela. Azkeneko hori gertatzen denean, udalekuaren arduradunek aldez aurretik jakinarazi beharko diete gurasoei, eta hauen baimena beharko dute adin txikikoekin luzapen hori gauzatzeko.

4.4. HORARIO

Para ambos lotes: El horario será de 9:30 a 13:30 horas, teniendo en cuenta que se podría realizar alguna actividad especial que retrase este horario. Siempre que eso ocurra la dirección del campamento lo notificará con anterioridad a los padres y madres, debiendo contar con su autorización para la asistencia de los y las menores.

Egunero, udalekuaren abiapuntua eta amaiera horretarako izendatutako zentroa izango da, umeak autobusez hurreratzen direnean izan ezik. Kasu horretan, aurretik adostutako autobus geralekua izango da eguneko jardunaldiaren hasierako eta azkeneko puntua.

Diariamente, tanto la incorporación como la salida del campamento se realizará en las instalaciones del centro que se destine a este fin, salvo que el/la menor haga uso del autobús para el desplazamiento, en cuyo caso el inicio y el final de la jornada serán en la parada acordada con anterioridad.

ZAINTZA ZERBITZUA:

Hala nahi duten pertsonek haurtzaindegi-zerbitzua eskatu ahal izango dute adingabeentzat. Kontziliazioa erraztea helburu duen zerbitzua da, batez ere autobusa hartu behar duen adingabe bat eta hartu behar ez duen beste bat duten familiengan pentsatua; baina denei irekia. Adingabeak zainduko dira soilik, esparruaren barruan, ludoteka edo hiri-udalekua hasi baino 30 minutu lehenagotik eta 30 minutu geroago arte.

Ez dira ez ratioak, ez taldeak, ez adinak kontuan hartuko; eta denbora horretan ez da jolasik edo jarduerarik egingo. Zaintzara mugatuko da.

Familiek izena emateko orrian eskatu beharko dute zerbitzu hau eta haurra zein ordutan joango den adierazi beharko dute, baita jasotzeko ordua ere.

SERVICIO DE GUARDERÍA:

Las personas que así lo deseen podrán solicitar el servicio de guardería para los y las menores. Es un servicio que tiene por objetivo facilitar la conciliación, sobre todo creado pensando en las familias que tienen un menor que deba coger el autobus y otro que no, aunque está abierto a todo el mundo. Consistirá únicamente en vigilar a los menores dentro del recinto desde 30 minutos antes a comenzar la ludoteca o hiri-udalekua y hasta 30 minutos después.
No se trendrán en cuenta ni ratios, ni grupos, ni edades; ni tampoco se realizarán juegos ni actividades durante ese tiempo. Se limitará a la vigilancia.

Las familias deberán solicitarlo en la hoja de inscripción, señalando la hora en la que acudirá el niño o niña, así como la hora de recogida.

4.5. GARRAIOA

Joan-etorri guztiak enpresa adjudikatzailearen kontura izango dira. Enpresa horrek behar diren neurri guztiak hartuko ditu (elementu identifikagarriak, argazkiak…) ume bakoitza behar den lekuan jaso eta entregatua izan

4.5. TRANSPORTE

Todos los desplazamientos serán por cuenta de la empresa adjudicataria. Esta empresa adoptará todas las medidas necesarias (elementos identificables, fotografías…) para que cada niño y niña sea recogido y entregado

dadin inolako arazo barik.

Joan-etorri guztiak, adingabeak garraiatzeko behar diren segurtasun eta ekipamendu egokiak dituzten autobusetan egingo dira. Joan-etorrietan, parte-hartzaileekin batera, enpresa adjudikatzailearen bi arduradun joan beharko dira gutxienez. Zerbitzua emateko erabiltzen diren ibilgailu guztiek behar diren aseguruak izan behar dituzte, SOV barne, eta IATa indarrean. Kontratu hau egiteko erabiltzen diren ibilgailuek hamar urteko antzinatasuna izan beharko dute gehienez, lehen matrikulaziotik hasita.

Esleipendunak behar den arreta guztia eskainiko du egiaztatzeko garraioak betetzen dituela legezko baldintza guztiak (IAT, asegurua, etab.).

en el lugar necesario sin ningún problema.

Todos los desplazamientos se realizarán en autobús con la seguridad y equipamiento adecuados para el transporte de menores. Los desplazamientos deberán ir acompañados de, al menos, dos responsables de la empresa adjudicataria. Todos los vehículos que se utilicen para la prestación del servicio deberán contar con los seguros necesarios, incluido el SOV, y la ITV en vigor. Los vehículos utilizados para la celebración de este contrato deberán tener una antigüedad máxima de diez años desde la primera matriculación.

La empresa adjudicataria prestará toda la atención necesaria para comprobar que el transporte cumple todos los requisitos legales (ITV, seguro, etc.).

5.- UDALAREN ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN ARTEKO HARREMANAK

Entitate esleipen-hartzailea behartua dago Abadiñoko Udalari jakinaraztera jarduera aldaketak edo beharrezkotzat jotzen duen beste edozein gertaera. Era berean, Udalak entitate esleipen-hartzaileari jakinaraziko dizkio zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko egin behar diren aldaketak.

5.1. PARTE HARTZEN DUTEN FAMILIEKIN BILERA

Enpresak konpromisoa hartzen du guraso eta tutoreentzako bilera guztietara joateko. Enpresako arduradunak edo enpresak loteko koordinatzaile izendatzen duenak bilera

5.- RELACIONES ENTRE EL AYUNTAMIENTO Y LA EMPRESA ADJUDICATARIA

La entidad adjudicataria está obligada a comunicar al Ayuntamiento de Abadiño los cambios de actividad o cualquier otro hecho que considere necesario. Asimismo, el Ayuntamiento comunicará a la entidad adjudicataria las modificaciones necesarias para mejorar el funcionamiento del servicio.

5.1. REUNIÓN CON LAS FAMILIAS

La empresa se compromete a asistir a cuantas reuniones de padres/madres o tutores se convoquen. A estas reuniones deberá asistir la responsable de la empresa o quien la empresa

horietara joan beharko du. Horietan, entitate esleipendunak programa aurkeztuko du eta familien zalantzei erantzungo die.

5.2. EBALUAZIOA

Udalekua bukatutakoan, entitate esleipen-hartzaileak urte horretako irailaren 16a baino lehen **memoria** aurkeztu beharko du. Memoria horrek atal hauek izango ditu nahitaez:

- Jardueren laburpena.
- Enpresaren eta monitore-taldearen balorazioa, atal hauei dagokienez: helburuen betetze maila, metodologiaren egokitasuna, jarduera-programaren garapena, taldearen ezaugarriak, instalazioak, giza baliabideak, baliabide materialak, gorabeherak…
- Parte-hartzaileen eta haien guraso edo tutoreen ebaluazioa, haien iritzien laburpen estatistikoarekin eta jatorrizko inkestekin.
- Gastuen zerrenda desglosatua: pertsonal gastua, material gastua, autobus gastua…

designe como coordinador/a del lote. En ellas, la entidad adjudicataria presentará el programa y responderá a las dudas de las familias.

5.2. EVALUACIÓN

Una vez finalizado el campamento, la entidad adjudicataria deberá presentar la memoria antes del 16 de septiembre de ese año. Dicha memoria constará necesariamente de los siguientes apartados:

- Resumen de las actividades.
- Valoración de la empresa y del equipo monitor en cuanto al grado de cumplimiento de los objetivos, idoneidad metodológica, desarrollo del programa de actividades, características del grupo, instalaciones, recursos humanos, materiales, incidencias…
- Evaluación de las personas participantes y sus padres, madres o tutores con resumen estadístico de sus opiniones y encuestas originales.
- Listado desglosado de gastos: gastos de personal, gastos de material, gastos de transporte...

6.- AURKEZTU BEHARREKO PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK ETA BETEBEHARRAK

Lehiaketan parte hartzen duen elkarte, entitate edo enpresak jarduerak garatzeko

6.- CARACTERÍSTICAS Y REQUISITOS DEL PROYECTO A PRESENTAR

La asociación, entidad o empresa que participe en el concurso deberá presentar un **proyecto**

proiektu bat aurkeztu behar du lote bakoitzeko (sail baterako bakarrik ere aurkez daiteke). Proiektuak alderdi hauek derrigorrez jaso behar ditu:

6.1. IKUSPEGIA ETA HELBURUAK (OROKORRAK ETA ZEHATZAK)

6.2. PROGRAMAZIOA.

Ekintzen **deskribapen zehatza** egunez egun.

Jarduerek bat etorri beharko dute proposatutako helburuekin. Jarduera bakoitzarekin lortu nahi diren **helburu espezifikoak** azaldu beharko dira.

Jarduerak parte-hartzaileen adinera eta irizpide hauetara egokitu beharko dira:

- Aukera askoko jarduerak eta originalak.
- Euskararen erabilera bultzatzeko prozedurak barneratu behar ditu.
- Arazo sozial zein pertsonalak dituzten norbanakoen gizarteratzea aurreikusi behar da.
- Genero berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko jarduerak eta elkarlana zein adimen emozionala lantzeko ekintzak indartuko dira.

Jarduerak espazio zabalean egitea lehenetsiko da.

6.3. JARRAIPEN / EBALUAZIORAKO METODOLOGIA.

de actividades por cada lote (se puede presentar también sólo para un lote). El proyecto que se presente deberá contener, obligatoriamente, los siguientes apartados:

6.1. ENFOQUE Y OBJETIVOS (GENERALES Y ESPECÍFICOS)

6.2. PROGRAMACIÓN.

Descripción detallada de las actividades por día.

Las actividades deberán estar en consonancia con los objetivos propuestos. Deberán explicarse los **objetivos específicos** que se persiguen con cada actividad.

Las actividades se deberán adecuar a la edad de los y las participantes y a los siguientes criterios:

- Ser variadas y originales.
- Tiene que incluir procedimientos para fomentar el uso del euskera.
- Contemplar en la metodología la integración de individualidades con problemática social o individual.
- Se potenciarán actividades que promuevan la igualdad de género, la cooperación la diversidad y la inteligencia emocional.

Se priorizará que las actividades se realicen en espacios abiertos.

6.3. METODOLOGÍA DE SEGUIMIENTO/ EVALUACIÓN.

- Udalekuaren funtzionamenduaren jarraipena egiteko metodologiaren deskribapen zehatza.
- Ebaluaketa metodologiaren deskribapen zehatza: proposatutako helburuen betetze-maila; lan-taldearen balorazioa; gazteen balorazioa; familien balorazioa.

- Descripción detallada de la metodología para el seguimiento del funcionamiento de la colonia.
- Descripción detallada de la metodología de evaluación: grado de cumplimiento de los objetivos propuestos; valoración del equipo de trabajo; valoración de los y las jóvenes; valoración de las familias.

6.4. IZEN-EMATEA EGITEKO PROZEDURA

6.4. PROCEDIMIENTO DE INSCRIPCIONES

6.5. JARRAITU BEHARREKO ESKU-HARTZE PROTOKOLOAK; GUTXIENEZ, HONAKO HAUEK:

6.5. PROTOCOLOS DE INTERVENCIÓN A SEGUIR; COMO MÍNIMO LOS SIGUIENTES:

- Lekualdaketen protokoloa, bidaiarien garraioetan edo oinez.
- Haurrak jasotzeko protokoloa.
- Protokoloak jokabide disruptibo eta desegokien aurrean, egokitzeko arazoen edo portaera txarraren aurrean eta familiekin komunikatzeko protokoloa.
- Indarkeria matxistaren aurreko protokoloa.
- Osasun-kontingentzien eta/edo larrialdien protokoloa (istripuak, gaixotasunak...).

- Protocolo de traslados, en transportes de viajeros o a pie.
- Protocolo de recogida de los/as menores.
- Protocolos ante conductas disruptivas e inapropiadas, problemas de adaptación o mal comportamiento y protocolo de comunicación con las familias.
- Protocolo ante la violencia machista.
- Protocolo de contingencias sanitarias y/o emergencias (accidentes, enfermedades...).

6.6. LAN-TALDEA ETA KOORDINAZIOA:

6.6. EQUIPO DE TRABAJO Y COORDINACIÓN:

- Begirale eta koordinatzaileen funtzioak/lanak.
- Aurreko prestaketa saioa/k (deskribapena)
- Lantaldearen koordinazioaren deskribapena.
- Koordinazioa eta komunikazioa

- Funciones de monitorado y coordinadores/as.
- Descripción de sesión/es previa/s de preparación.
- Descripción de coordinación del equipo de trabajo.
- Coordinación y comunicación con las

familiekin.

familias.

6.7. COVID-19AREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA
Protokolo hau aurkeztu beharra baloratuko da pandemiak unean une sortutako osasun-egoeraren arabera.

6.7. PROTOCOLO DE ACTUACIÓN FRENTE AL COVID-19
Se valorará la necesidad de elaborar este protocolo en función de la situación sanitaria en la que se encuentre la pandemia.

Nolabaiteko arriskua dakarten jarduerak egitekotan, horretarako gaitasun zehatza duten langile kualifikatuak izango dira dinamizatzaileak. Egin beharreko jardueretarako material, baimen eta aseguruak ere ezinbestekoak izango dira.

En aquellas actividades que conlleven cierto riesgo, será personal específicamente cualificado quien las dinamice. Será imprescindible contar con el material, con los permisos y seguros correspondientes para dicha actividad.

7.- GIZA BALIABIDEAK

7.1. BETE BEHARREKO BALDINTZAK:
Elkarte, entitate edo enpresa adjudikatzaileak, jarduera garatzeko, giza baliabideen zerrenda aurkeztu behar du, 10 egun balioduneko epea izango du, esleipen-proposamena jakinarazten denetik aurrera, eta kontratua formalizatu aurretik, honako irizpide hauek kontuan izanda:

7.- RECURSOS HUMANOS

7.1. CRITERIOS A CUMPLIR:
La asociación, entidad o empresa adjudicataria deberá presentar, en el plazo de 10 días hábiles a partir de la notificación de la propuesta de adjudicación y previo a la formalización del contrato, la relación de recursos humanos que pone para el desarrollo de las actividades, ajustándose a los siguientes criterios:

Enpresa adjudikaziodunak egiaztatu beharko du proiektuarekin lotutako **pertsonalak** ondorengo baldintzak, behintzat, betetzen dituela:

1) DBH tituluaren jabe izatea.
2) Euskararen C1 maila edo baliokidea. Hori hala dela frogatu daiteke EGA edo bere pareko titulu baten bidez. Ezagupen maila frogatutzat emango da goi ikasketak euskaraz eginak izan

La empresa adjudicataria deberá acreditar que **todo el personal** relacionado al proyecto cumple al menos los siguientes requisitos:

1) Estar en posesión del título de ESO.
2) Tener el nivel C1, o equivalente, de euskera. Se podrá acreditar mediante la presentación del título EGA u otro equivalente. Se entenderá acreditado en el caso de haber cursado estudios superiores en euskera mediante la

ezkero, dagokion egiaztagiria erakutsita 47/2012 DEKRETUAK, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoak jasotakoaren arabera.

3) Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa izatea.

Adjudikaziodunak **behar beste begirale edo hezitzaile** jarri beharko ditu zerbitzua emateko. Hauek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

1) 18 urte beteta izatea.
2) Denbora libreko begirale titulua edo ondorengo ikasketa hauek izatea: Magisteritza, Gizarte hezkuntza, Pedagogia-psikologia, Gizarte eta kultur animazioa, Gizarte integrazioa edo Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa.

Adjudikaziodunak **zuzendari edo koordinatzaile bat gutxienez** jarriko du saileko. Pertsona horiek baldintza hauek, behintzat, bete behar dituzte:

1) 21 urte beteta izatea.
2) Aisialdiko eskola homologatu batean lortutako Aisialdiko zuzendari titulua, edo ondorengo ikasketa hauek izatea: Magisteritza, Gizarte hezkuntza, Pedagogia-psikologia, Gizarte eta kultur animazioa, Gizarte integrazioa edo Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa.
3) Gutxienez, antzeko 2 udalekuetan esperientzia izatea. Egiaztatu beharko da.

Proiektuan, jardueren garapenean parte

presentación de la correspondiente certificación en referencia al DECRETO 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

3) Contar con el Certificado Negativo de Delitos Sexuales.

La empresa adjudicataria deberá contar con el número de **monitores/as o educadores/as necesarios** para el servicio. Deberán cumplir los siguientes requisitos:

1) Tener cumplidos 18 años de edad.
2) Tener el título de monitor/a de tiempo libre o estudios de Magisterio, Educación social, Pedagogía-psicología, Animación socio-cultural, Integración social o Ciclo superior de educación infantil.

La empresa adjudicataria deberá contar con **un/a director/a o coordinador/a como mínimo** por lote. Dichas personas deberá cumplir al menos los siguientes requisitos:

1) Tener 21 años cumplidos.
2) Obtención en una escuela de Tiempo Libre Homologada del título de Director de Tiempo Libre, o estudios de Magisterio, Educación social, Pedagogía-psicología, Animación socio-cultural, Integración social o Ciclo superior de educación infantil.
3) Experiencia en, al menos, 2 colonias similares. Deberá acreditarse.

La empresa adjudicataria deberá presentar la relación de personal que va a desarrollar las

hartuko duen pertsonalaren izen-abizenak eta adierazitako baldintzak aurkeztu beharko ditu enpresa adjudikatzaileak, bai eta egiaztagiriak ere.

Gainera, kontratatutako langileek laneko legeriak eta indarrean dagoen gizarte segurantzak legez eskatzen dituzten baldintzak bete beharko dituzte, eta era horretan, ziurtatu beharko dira indarrean dauden Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Hitzarmenak jasotzen dituen soldatak.

7.2. LAN JARDUNA:
Zerbitzuaren iraupena 4 ordukoa izan arren, hezitzaileen lan jarduna ordu erdi lehenago hasiko da eta ordu erdi beranduago bukatu. Izan autobusean haurrak laguntzeko, zaintza zerbitzuan egoteko edo eguneko materiala prestatu zein jaso eta ebaluazioa egiteko.

Gainera, begirale guztiek ludotekaren edo hiri-udalekuaren aurreko bilera batean parte hartuko dute elkar ezagutzeko, programazioa prestatzeko, zerbitzua antolatzeko, etab.

Ludotekako edo hiri-udalekuko koordinatzaileak familiei zuzendutako bileran ere parte hartu beharko du.

8.- COVID-19 OSASUN-EGOERA

COVID-19 pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, jarduerek aldaketak izan ditzakete parte-hartzaile kopuruari, ratioei eta abarri dagokienez.

Osasun-agintarien erabakiei edo gomendioei jarraituz, jarduerak moldatu edo bertan

actividades, incluyendo: el nombre y apellidos de los mismos, y los requisitos señalados en los apartados anteriores, acompañados de documentos acreditativos.

Además, el personal deberá estar contratado con los requisitos legalmente exigidos por la legislación laboral y de la seguridad social vigente, garantizándole las tablas salariales del Convenio en vigor de Intervención Social de Bizkaia.

7.2. JORNADA LABORAL:
El servicio sea de 4 horas, pero la jornada del monitorado comenzará media hora antes y finalizará media hora después. Sea para acompañar a los menores en el autobus, estar en el servicio de guardería o preparar, recoger y ebaluar las actividades de ese día.

Además, todo el monitorado participará en una reunión previa a la ludoteca o hiri-udalekua de cara a conocerse, preparar la programación, organizar el servicio, etc.

La persona coordinadora de la ludoteca o hiri-udalekua deberá participar también en la reunión dirigida a las familias.

8.- SITUACION SANITARIA COVID-19

Debido a la situación provocada por la pandemia de COVID-19 las actividades podrán sufrir alteraciones en cuanto a número de participantes, ratios, etc.

Siguiendo las decisiones o recomendaciones de las autoridades sanitarias las actividades

behera utzi ahal izango dira, parte-hartzaileen nahiz begiraleen osasuna babesteko.

podrán ser modificadas o suspendidas a fin de proteger la salud tanto de los y las participantes, como del monitorado.

Jarduerak behin betiko eteten badira, automatikoki etengo da kontratua, eta enpresa esleipendunak ez du konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango, benetan egindako lana, horrek eragindako gastuak eta burututako gastuak ordaindu ezean.

La suspensión definitiva de las actividades conllevará la automática suspensión del contrato, no teniendo la empresa adjudicataria derecho a ninguna compensación salvo el abono del trabajo efectivamente realizado y los gastos que éste haya supuesto, así como aquellos gastos efectuados.

Enpresa esleipendunak osasun-agintariek ezarritako neurri egokiak hartuko ditu parte-hartzaileen eta begiraleen segurtasuna bermatzeko.

La empresa adjudicataria tomará las medidas pertinentes establecidas por las autoridades sanitarias para garantizar la seguridad, tanto de los y las participantes, así como del monitorado.

9.- ASEGURUA

Enpresa adjudikatzaileak Klausula Teknikoen Pleguko I eranskinean zehazten den Poliza kontratatu beharko du sail bakoitzeko.

9.- SEGURO

La empresa adjudicataria deberá contar para cada lote con una Póliza de acuerdo al anexo I del Pliego de Condiciones Técnicas.

Haizea Ginea Aginako
Abadiñoko Udaleko Euskara Teknikaria

Haizea Ginea Aginako
Técnica de Euskera del Ayuntamiento de Abadiño

HAIZEA GINEA AGINAKO - ***1677**k sinatua 12/04/2022 egunean EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2)-(e)k igorritako ziurtagiri bidez

I. ERANSKINA ASEGURUAK:	ANEXO I SEGUROS:
Erantzukizun Zibileko Polizan enpresa adjudikaziodunaren jarduera zehaztuko da, kontratuaren xedearen jarduera barne.	En la póliza de Responsabilidad Civil se detallará la actividad de la empresa adjudicataria, que deberá incluir la actividad del objeto del contrato.
Erantzukizun Zibileko poliza bat kontratatuko da, ondoko mugak eta babesak izango dituena: • Ustiaketako Erantzukizun Zibila, gutxieneko muga 600.000 eurotik beherakoa izango ez duena. • Patronaleko Erantzukizun Zibila, gutxieneko muga 600.000 eurotik beherakoa izango ez duena. • Patronaleko Erantzukizun Zibileko biktimako azpimuga, 150.000 eurotik beherakoa izango ez dena. Defentsa eta fidantza zibilak barne. • Frankiziaren zenbatekoak eragindako kalteak zein aseguru polizetan zehaztutako mugak gainditzearen ondorioak enpresa adjudikaziodunak hartuko ditu bere gain. • Enpresa adjudikaziodunak eta azpikontratistek Gizarte-Segurantzan alta emanda izan beharko dute kontratuan parte	Se contratará una póliza de Responsabilidad Civil con los siguientes límites y coberturas: • Responsabilidad Civil de Explotación con un límite no inferior a 600.000 euros. • Responsabilidad Civil Patronal con un límite no inferior a 600.000 euros. • Sublímite por víctima Responsabilidad Civil Patronal no inferior a 150.000 euros. Defensa y fianzas civiles incluido. • En todo caso serán soportados por el Adjudicatario los daños y perjuicios en la cuantía de la franquicia y en lo que superen los límites que se establezcan en las distintas pólizas de seguro. • La empresa adjudicataria y subcontratistas, deberán tener dadas de alta en la Seguridad Social a las personas que

hartzen duen pertsonala. Bestetik, enpresa eta azpikontratista horiek berei dagokien hitzarmen sektorialak zehaztutako Bizitza eta Istripu aseguruetako eskakizunak bete beharko dituzte.	intervengan en el contrato, así como cumplir con las exigencias de seguros de Vida y Accidentes que determinen los convenios sectoriales a los que pertenezcan.
Istripu poliza kontratatuko da udalekuetan parte hartzen duten umeentzat, ondorengo muga eta babesak izango dituena: • Istripu bidezko heriotza, 1.500 euroko mugarekin (hileta gastuak). • Erabateko baliaezintasun iraunkorra, 6.000 euroko mugarekin. • Laguntza sanitario mugagabea zentro kontzertatuetan.	Se contratará póliza de accidentes para los niños y niñas paticipantes en las colonias, con al menos los siguientes límites y coberturas: • Fallecimiento por accidente, con un límite de 1.500 euros (gastos de sepelio). • Invalidez permanente absoluta, con un límite de 6.000 euros. • Asistencia sanitaria ilimitada en centros concertados.